

**2018ko APIRILAREN 24ko
UDAL OSOKO OHIKO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2018ko apirilaren 24an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez

Ez da/dira batzarreratu

- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA
- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA
- ERREGU ETA GALDERAK

ALDERDI ERABAKITZAILEA

1. HERRI PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN ONARPENA.
2. GIPIZKOAKO JUBILATU ETA PENTSIODUNEN "DUINTASUNA" ELKARTEAREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.



3. ELA ETA LABEKO HAUTETSIEZ OSATUTAKO INVIZAKO LANGILE BATZORDEAREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA,
4. 2017KO EKITALDI EKONOMIKOAREN KONTU OROKORRA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.
5. ERRETORE ETXEAN HITZARTUTAKO PREZIOAN SEI ETXEBIZITZA EGIN AHAL IZATEKO DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN PROPOSAMENA.
6. ELDUAINGO HIRI ANTOLAKUNTZARAKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSKETAKO HIRIGINTZA DIAGNOSTIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.
7. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN FINTZANTZAKETARAKO HITZARMEN BERRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA

Osoko bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten.

- 2017/05/03ko Udalbatzarra, 2017ko maiatzaren 3koa ez ohikoa.
- 2017/05/30eko Udalbatzarra, 2017ko maiatzaren 30ekoa ohikoa.
- 2017/12/30eko Udalbatzarra, 2017ko abenduaren 30ekoa ez ohikoa

Oharrak aurkeztu ez direnez, idatzita dauden eraberean ahobatez onartzen dira.-

- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2017/060tik 2017/067 dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2017/070	MLO. Ezkutuko ekintzen geratze agindua.
2017/071	Diru-laguntza. Urdelar Biltokia. Herriko jubilatuen bazkariaren gastua.
2017/072	Abenduko Ohiko Osoko Bilkuraren deialdia.
2017/073	2018. ekitaldirako udal langileen egutegiaren onarpena.

2017/074	2017-KALD-000004-00 Kreditu aldaketa.
2018/001	Idazkariaren Lehiaketa Oinarriak
2018/002	Ezkutuko Obrak Ahlstrom Munksjö
2018/003	Obra baimena. Naturgas Energia. Gas hori bat konpontzeko baimena.
2018/004	Obra baimena. MEM
2018/005	Obra amaiera eta fidantza itzulketa. BLL
2018/006	Obra baimena. JAB. Txerritegiak bota eta hormigoizko zoladura bota.
2018/007	Diru-laguntza onartzea. Uzturpe Ikastola.
2018/008	Diru-laguntza ez onartzea. Kontseilua.
2018/009	Diru-laguntza ez onartzea. Araba Euskaraz Elkartea.
2018/010	Diru-laguntza onartzea. Herri Urrats Elkartea.
2018/011	Diru-laguntza ez onartzea. EHIGE Gurasoen Elkartea.
2018/012	Obra baimena. Ahlstrom Munksjö Kanalaren legalizazioa
2018/013	2017ko aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
2018/014	Diru-laguntza onartzea. Urdelar Biltokia.
2018/015	Diru-laguntza ez onartzea. Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
2018/016	Diru-laguntza onartzea. Nafarroa Oinez Fundazioa.
2018/017	Diru-laguntza ez onartzea. Ibilaldia Elkartea.
2018/018	Diru-laguntza ez onartzea. Urretxu Zumarraga ikastola. Kilometroak 2018.
2018/019	GLL Eskaera MLB
2018/020	GLL Eskaera MZO
2018/021	Obra baimena. JTA. Zoladura berritzeko lanak egiteko baimen eskaera.

- ERREGU ETA GALDERAK

Ez ziren aurkeztu halakorik.

HIRUGARREN PUNTUA: HERRI PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN ONARPENA.

Udalak eskatuta, Borja Izaskun Achutegui eta Cristina Burgos Villanueva arkitektoak ELDUAINGO HIRI Antolatzeko Plan Orokorren jarraian agertzen den "Herri Partaidetzaren programa" agiria landu dute.

1.- AURREKARIAK. Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) 84.4 eta 108. artikulua betetze aldera, Herritarren Parte Hartze Programa hau idatzi da. Honi jarraituko zaio, hain zuzen, ELDUAINGO HIRI Antolamenduko Plan Orokorra egiteko, izapidetzeko eta onesteko prozesuan.

2.- ARAUDI-ESPARRUA. Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak (urriaren 30eko 7/2015 LED) bere 5.e) artikuluan ezartzen du herritar guztiek dutela eskubidea modu eraginkorrean parte hartzeko lurralde-antolamendurako edo hiri-antolamendu eta -exekuziorako tresnak egiteko eta onesteko prozeduretan, baita haien ingurumen-ebaluazioan ere. Zehazki, eskubidea dute alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko, eta behar bezala arrazoituta erantzun bat jasotzeko administrazioaren aldetik, bat etorriz administrazio horren eta kasuan kasuko prozeduraren araubide juridikoa ezartzen duen legeriarekin.

Bestetik, Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) herritarren parte-hartzearen printzipioa arautzen du, eta ezartzen du pertsona fisiko eta juridikoen parte-hartzea (bere forma guztietan) ahalbidetuko dela hirigintza-antolamendua egitean, izapidetzean, onestean eta gauzatzean, legean berariaz ezarritako bermeekin. Aipatutako 2/2006 Legearen 84.4 artikuluan zehaztutakoaren arabera, dagokion hirigintza-plana edo -tresna formulatzean edo, bidezkoa bada, eskumeneko administrazioari izapidetzeko aurkeztutako plan edo tresna onartzeko izapideetan, zehatu egingo dira administrazio-koordinazioa sustatzeko gauzatu beharreko neurri eta jarduketa zehatzak, baita herritarrek plan edo tresna hori egiteko, izapidetzeko eta onesteko prozesuan parte hartzeko erabiliko den programa ere. Era berean, 2/2006 Legearen 108. artikulua arautu egiten du herritarren plan orokorrean parte hartzeko programa, eta ezartzen du egitura-antolamenduaren plangintzarako edozein figura egiteko, aldatzeko edo berrikusteko hasierako udal-erabakiarekin batera herritarren parte-hartzerako programa bat egin behar dela. Programa horretan, herritarrei eta elkarteei prozesuan parte hartzeko eskubidea bermatzeko behar diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak zehaztuko dira, udalerraren ezaugarrien arabera. Mekanismo horiek izango dira, besteak beste:

A) Aurrerapenen edukia azaltzeko jendaurreko saioak; bereziki, hiria eraikitzeke erabaki estrategikoak eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak azalduko dira.

B) Udal-mailako herri-kontsulta egiteko aukera, planean jasotako alderdiren batek eztabaida handia sortzen badu herritarren artean, betiere toki-araubideko oinarritzko legerian ezarritako erregulazioarekin bat.

C) Dibulgazio-materiala; legeak hirigintza-tresnetarako eskatzen dituen dokumentuekin batera prestatu beharko da, tresna horiek errazago zabal eta uler daitezzen. Azkenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) bere 133. artikuluan arautzen du herritarrek lege-mailako arauak eta araudiak egiteko prozeduran izan behar duten parte-hartzea, eta ezartzen du lege- edo araudi-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik kontsulta publiko bat egin behar dela, dagokion administrazioaren webgunearen bidez. Bertan bildu beharko dira etorkizuneko araudiaren kaltea jasan dezaketen pertsona eta erakunde esanguratsuenek honako hauei buruz duten iritzia:

A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

B) Proposamena onestearen beharra eta egokitasuna.

C) Arauaren helburuak.

D) Egon daitezkeen arauzko eta ez-arauzko alternatibak. Kontsulta publiko hori egitean, arauaren hartzaile izango direnek eta ekarpenak egingo dituztenek aukera izan beharko dute beren iritzia emateko. Horretarako, beharrezko dokumentuak helarazi beharko zaizkie; dokumentu horiek argiak eta laburrak izan beharko dute, eta dagokion gaiari buruz duten iritzia azaltzeko beharrezkoa den informazio guztia bildu beharko dute.

3.- HELBURUAK. Herritarren parte-hartze programaren oinarritzko helburuetako bat da bermatzea herritarrek ELDUAINGO Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren proposamenaren edukia eta irismena ezagutzen dituztela, bereziki hirigunea garatzeko soluzio desberdinei dagokienez (bizitegi-zuzkidura, eta

espazio publikoen nahiz zuzkidura publikoen sistema orokorren garapena). Hartara, aukera izango dute proposamen horri buruz duten iritzia helarazteko Udaltzari. Ildo horretan, programaren xedea da parte-hartzearekin loturiko zenbait helburu espezifiko betetzen direla bermatzea; honako hauek dira:

- Parte hartzeko eskubideari eta moduari buruzko informazioa ematea.
- Informazioa eskuragarri jartzea Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiten den bitartean.
- Parte hartzeko aukera ematen duten prozeduraren faseetan oharrak eta iruzkinak egiteko eskubidea aitortzea.
- Parte-hartzea bideragarri egitea, eta interesdunei informazioa helarazteko eta nahi dutenek ekarpenak egiteko kanalak jartzea. Parte-hartzea ahalbidetzen duten elementuak bi motatakoak dira: batetik, lege-araudiaren arabera nahitaez bete beharreko ekintzak; eta, bestetik, parte-hartzea are eraginkorragoa izateko proposatzen diren ekintza osagarriak.

Bi multzo horietan fase bakoitzari dagokion eduki espezifiko jarriko da erabilgarri, material grafikoa edo dibulgazio-idazkiak erabiliz, auzotarrei eta jendeari oro har azalpenak emateko ekintzak gauzatu, ematen diren iritzia eta alegazioak aztertuz eta baloratu, edo, aurreikusi bezala, herritarren parte-hartze prozesuaren laburpen-txosten bat eginez.

Elduaingo herritarren iritzia gertuagotik ezagutzeko asmoz, onetsitako herritarren parte-hartze programaren barneko beste jarduketa batzuen artean, inkesta bat egin zaie herritar guztiei. Horren bidez, udalerriko hiri-antolamenduaren alderdirik esanguratsuenak aztertu dira, eta emaitza jarraian azalduko da.

Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketa dela-eta prestatu den inkestan emandako erantzun guztietatik batzuk ekarri ditugu hona. Erantzun horiek, oso zehatzak ez badira ere, galderei erantzun dieten herritar gehienek iritzia uzten dute agerian. Hona hemen herritarren joeraren laburpena:

- Landa-lurzoruaren antolamenduari dagokionez, beharrezkotzat jotzen dute baserriak etxebizitza gisa gaitzeko aukera ematea, 10.000 m²-ra arteko landa-partzelak bereizteko aukera emanez, landa-ingurunea koniferoen plantazio masiboetatik babestuz eta paisaia- nahiz ingurumen-balioak zainduz.
- Denek uste dute landa-lurzoruaren intereseko elementuak baloratu eta babestu egin behar direla, hala nola baserriak, trikuharriak, Leitzaran...
- Ekipamendu publikoei dagokienez, hiriguneko ekipamendu-zuzkidurak areagotzeko beharra ikusi dute.
- Eskatutako ekipamenduak askotarikoak dira, baina hauek dira gehien aipatu direnak: kultura-ekipamenduak, kirol-ekipamenduak, bidegorriak, adinekoen zentroa, gazteentzako topaguneak, etab. Kirolari dagokionez, herritarrek uste dute kirolerako udal-ekipamendu bat jarri behar dela, erabilera anitzeko aretoa liburutegi gisa erabili ahal izan dadin. Horrez gain, proposatu dute udaletxeko ganbara erabiltzea (gaur egun ez da erabiltzen), eta udal-biltegiaren egoera aldatzea (gaur egun oso txikia da eta ez dauka irisgarritasunik), handituz edo lekuz aldatuz.
- Azpiegiturei dagokienez, beharrezkotzat jotzen dute azpiegiturak hobetzea, nagusiki argiteria publikoa, Internet eta telebista, baita ur beltzen hodi biltzaileak ere. Halaber, udalerriko hainbat leku eta inguruko beste udalerririk batzuk bidegorriekin lotzeko aukera aipatu dute.
- Etxebizitzaren eta bizitegi-lurzoruaren arloan, beharrezkotzat jotzen dute udalerrian etxebizitza

gehiago egitea, nagusiki hirigunean eta batez ere familia bakarrekoak edo atxikiak. Dena den, blokeko etxebizitza merkeagoak egitea ere interesgarria izango litzatekeela uste dute, udalerrira jende gehiago erakartzeko.

- Herrian behar beste aparkaleku daudela uste dute.
- Etxebizitza babestuari dagokionez, gehienek uste dute udal-ekimeneko etxebizitza babestu berriak behar direla. Urtean etxebizitza bat edo bi sustatu beharko lirarteke.
- Industria-lurzoruari dagokionez, ez dute uste horiek zabaldu behar direnik, eta nahikoa aparkaleku badutela uste dute.
- Mugikortasunaren harira, beharrezkotzat jotzen dute egun dauden bideak hobetzea, baina ez dago bide berriak egiteko edo zirkulazioaren norabideak aldatzeko eskaera handirik. Zenbait herritarrek eskatu dute plaza oinezkoentzat jartzeko edo, gutxienez, ibilgailuen sarbidea mugatzeko.
- Ondareari dagokionez, beharrezkoa iruditzen zaie egungo baserriak, eliza, udaletxea eta Santa Kruz ermita babestea, baita karobi eta iturriak ere.
- Amaitzeko, espazio publikoei dagokionez, herritar guztiek ez dute iritzi berdina udaletxearen aurreko plazari buruz: batzuek uste dute dagoen bezala utzi behar dela, tratamendu mistoarekin; eta beste batzuek oinezkoentzat jarri behar dela. Dena den, herritar guztiek uste dute haur-parkea dagoen lekuan utzi behar dela. Proposatu dute, halaber, aisialdirako espazio berriak sortzea elizaren atzeko zelaian.

4.- EDUKIA. Hona hemen Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko izapideak egitearekin lotura duten Herritarren Parte Hartze Programaren faseak eta horien edukiak (udal-teknikariak arduratuko dira horiek gauzatzeaz):

1. FASEA: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasiera batean onetsi aurreko herritarren parte-hartze mekanismoak: Nahitaezko ekintzak:

- Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzearen aldeko udal-erabakian onetsiko da plan hori egiteko, izapidetzeko eta onesteko prozesuan aplikatuko den Herritarren Parte Hartze Programa hau. Ekintza osagarriak:
- Planaren helburuei eta edukiei buruzko informazioa ematea herritarrei, Udalaren WEBGUNEAREN bidez.
- Jendaurreko informazioa ematea, udalerrian maiz egiten diren herritarrentzako bilera irekien bidez.

2. FASEA: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasiera batean onetsi ondoko herritarren parte-hartze mekanismoak: Nahitaezko ekintzak:

- Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasiera batean onestea eta jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean gehien saltzen den egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da, azken argitalpenetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, bat etorriz 2/2006 Legearen 90.5 artikuluekin. Horrez gain, plana ikusgai dagoela jakinaraziko da Udalaren ohiko kanaletatik.
- Alegazioak jasotzea.
- Hasierako onespeneren ondorengo jendaurreko epean jasotako alegazioei buruzko txosten zehatzak, behin-behinean onesteko aurkezten den Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bateginean sartu beharrekoak.

Ekintza osagarriak:

- Jendaurrean azaltzeko bilera. Udalaren lokaletan egingo da, Udalak adierazten duen orduan eta

egunean. Bilera honetan azalduko da Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak zer-nolako irismena duen eta zer eduki barne hartzen dituen, dokumentua nola kontsulta daitekeen, bilera partikularretarako hitzordua nola eska daitekeen, alegazioak nola egin behar diren, eta non eta noiz aurkeztu behar diren. Bileraren amaieran galderak egiteko txanda irekiko da. Bilera hori jendaurreko epea amaitu baino 15 egun natural lehenago egingo da, gutxienez.

- Jarraitutako parte-hartze prozesuaren laburpen-txostena, behin-behinean onesteko aurkezten den Elduaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bateginean sartu beharrekoa.

Agiria ikusita, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Herri partzaidetzaren programa onartzea.

LAUGARREN PUNTUA: GIPIZKOAKO JUBILATU ETA PENTSIODUNEN "DUINTASUNA" ELKARTEAREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen "DUINTASUNA" ELKARTEAK ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Berastegiko Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu, berau osatzen duten Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,...

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzaren azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienek, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula.

Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi

dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI

ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.
- 2.- 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitzen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.
- 3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzaren Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezken.
- 4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.
- 5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udala honek onartu dituen erabakiak.

Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-

BOSGARREN PUNTUA: ELA ETA LABEKO HAUTETSIEZ OSATUTAKO INVIZAKO LANGILE BATZORDEAREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Asunzion Klinikako (Inviza) langile batzordeak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Elduaingo Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udala taldeak onartu dezatela.

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu. E.S.I. aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskualdeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negoziata seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hor ez dela horrela.

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu hospitale publikorik ez duen EAEko eskualde bakarra garela.

Eta gure baldintzak prekarioak diren ainean eskeintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpreari.
- 2.- Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.
- 3.- Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.
- 4.- Udalak eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1. - 3.2.2. -3.2.4. -3.2.5. -3.3.2. -3.3.4. puntuetan.
- 5.- Bidali diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernuari.

Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-

SEIGARREN PUNTUA: 2017KO EKITALDI EKONOMIKOAREN KONTU OROKORRA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Apirilaren 5ean Hazienda eta Pertsonal Batzordeak eginiko bileran 2011ko Kontu Orokorraren espedientearen aldeko diktamena egin zen, eta honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko irailaren 24ko datarekin argitaratutako iragarki bidez eman zen, bere aurka inongo erreklamaziorik aurkeztu gabe.

Agiria ikusita, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2017ko Kontu Orokorraren espedientea onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

ERRETORE ETXEAN HITZARTUTAKO PREZIOAN SEI ETXEBIZITZA EGIN AHAL IZATEKO DONOSTIA ELIZBARRUTIAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMEN PROPOSAMENA.

Alkateak Donostiako Elizbarrutia eta Elduaingo Udalak adostu duten hitzarmenaren edukiaren berri eman da.

Hitzarmen honen bidez, Elduaingo udalak asmoa duen etxebizitza-sustapen gauzatuko da.

Udal Idazkari-Kontu-hartzaileak beharrezkoa den txostena 2018ko apirilaren hemezortzian egin du.

Ondorioz, Elizbarrutiarekin sinatuko den hitzarmena onartzea proposatzen da.

Beraz, aipatu hitzarmenaren testu osoa eranstean da.

Gai honi buruzko baliozko erabakia hartzeko, beharrezkoa gertatzen da Udalbatzarraren legezko gehiengo osoaren aldeko botoa, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Jaurbidearen 47 artikulua xedatutakoaren arabera.

Agiria ikusita, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aurkeztua izan den eraberean lankidetzaren hitzarmena Donostiako Elizbarrutiarekin onartzea.

BIGARRENA: Hitzarmenaren eduki osoa akta agiriari gehitzea I eranskin bezala.

HIRUGARRENA: Alkateari zabalki ahaldundu, udalaren izenean sinatzeko eta bere helburuak egoki gauzatu daitezkeen beharrezkoak diren gestioak egiteko.

LAUGARRENA: Donostia Elizbarrutiari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

ZORTZIGARREN PUNTUA: ELDUAINGO HIRI ANTOLAKUNTZARAKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSKETAKO HIRIGINTZA DIAGNOSTIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udalak eskatuta, Borja Izaskun Achutegui eta Cristina Burgos Villanueva arkitektoak Elduaingo Hiri Antolatzeke Plan Orokorraren jarraian agertzen den "Diagnostikoa" agiria landu dute.

Agiria ikusita, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herri partzaidetzaren programa onartzea.

BIGARRENA: Diagnostikoaren eduki osoa akta agiriari gehitzea II eranskin bezala.

HAMARGARREN PUNTUA:

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN FINTZANTZAKETARAKO HITZARMEN BERRIA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzeko.

Ikusirik gai honen inguruan Gizarte Politikarako Departamenduak landutako hitzarmen zirriborroa.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, indarrean dauden toki jaurbideko araudiaren arabera Elduaingo Alkatea izanagatik ditudan eskuduntzak erabilita, honako hau:

LEHENA: “Elduaingo Udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzeko” lankidetzak hitzarmena sinatzea Elduaingo Udalaren izenean eta ordezkaritzan, igorritako ereduari jarraiki.

BIGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

Eta, 20.15 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2018ko apirilaren 24an.

O.e.
Alkateak ,

Idazkari-Kontu-Hartzaileak,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Maria Pilar Garmendia Miguel



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



I ERANSKINA

ASMOEN AKORDIOA

Alde batetik, JOSE ANGEL URKIZU ODRIOZOLA, adinez nagusia, Elduaingo bizilaguna (NAN zk.: 34.098.539-G; jakinarazpenetarako helbidea: Hirigunea 1).

Beste aldetik, ANDER ALCORTA URQUIOLA jauna, adinez nagusia (NAN zk.: 15.382.876-Q; jakinarazpenetarako helbidea: Zabaleta kalea 5, Donostia).

Parte hartu dute:

- **JOSE ANGEL URKIZU ODRIOZOLAK**, Elduaingo alkate gisa, eta 2017ko irailaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.
- **ANDER ALCORTA URQUIOLA jaunak**, DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAREN izenean eta haren ordezkari gisa, elizbarrutiko ekonomoa denez gero (2012ko apirilaren 24an izendatu zuten), eta 2012ko maiatzaren 17an Donostiako notario Francisco Javier Oñate Cuadros jaunaren aurrean (haren protokolo 757. zenbakia) emandako ahalorde-ekrituraren arabera.

HAU ADIERAZI DUTE

I.- Elduaingo parrokia-eliza da herriguneko 11. zenbakian dagoen lursailaren jabea (katastro-erreferentzia: 8177030), eta haren erregistroko deskribapena honako hau da:

DESKRIBAPENA

HIRIKOA: Herrigunean kokatutako apaizetxea, hamahiru zenbakia duena, Elduaingo jurisdikzioan dagoena eta beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara dituena. Sartu eta eskuinetik, hots, ekialdetik, Garro izeneko etxearekin muga egiten du, eta baita auzo-bide batekin ere; ezkerretik edo mendebaldetik, Marticho lursailarekin (eraitsitako etxea); aurretik edo hegoalde, deskribatzen ari garen etxearen aurreko patioarekin; eta atzetik edo iparraldetik, apaizetxeko baratzearekin. Eraikitako orubeak berrehun eta hirurogeita hamar metro koadro ditu. Hauek osatzen dute: apaizetxearen aurreko patioak muga egiten du iparraldean auzo-bide batekin, hegoaldean apaizetxearekin, ekialdean auzo-bidearekin eta mendebaldean Marticho bidearekin; patio horrek bi area eta hogeita lau zentia area ditu. Atzeko patioak iparraldean apaizetxearekin egiten du muga, hegoaldean etxearen beraren lursail itxiarekin, ekialdean Garro etxeko baratzearekin eta mendebaldean apaizetxeko baratzearekin; patio horrek berrogeita bi zentia area ditu. Alanbrez eta paretaz itxitako lursail bat da, iparraldean Garroren beste lursail batekin muga egiten dutena, hegoaldean auzo-bidearekin, ekialdean ere auzo-bidearekin, eta mendebaldean apaiz-baratzearekin eta auzo-bidearekin; lursail horrek zazpi area eta lau zentia area ditu. Apaiz-baratzeak iparraldean muga egiten du zati batean apaizetxearekin eta beste zati batean Martichoko lursailarekin, hegoaldean auzo-bidearekin, ekialdean azkena deskribatutako lursailarekin eta etxearen atzeko patioarekin, eta mendebaldean Zamorako lursailarekin; baratze horrek bederatzi area eta hirurogei zentia area ditu.

KARGAK: Hizpide dugun lursail honek ez du kargarik.

TITULUA:

Jabea da:

ELDUAINGO SANTA KATALINA PARROKIA-ELIZA
Partaidetza: lursail osoa
Titulua: JABARIAREN ZIURTAGIRIA
Autoritatea: Leopoldo Eijo Garay
Herria: VITORIA-GASTEIZ

Dokumentuaren data: 1918/12/07

Inskripzioa: Jabetzaren 1.a

Inskripzio-eguna: 1919/01/07

Liburukia/Liburua/Orria: 438/8/101

Lursaila: 181

AURKEZPENA: Ez dago eguneroko liburuan hizpide dugun lursailari lotutako inskripzio edo oharren bat egiteko daukan aurkeztutako dokumenturik.

Hari lotutakoa egokia da, eta bidalketaren egunaren aurreko egun baliodunean egunerokoa itxi arteko eragina du.

II. - Elduaingo Udalak interesa du etxebizitza-sustapen bat egin dadin, prezio murriztuan, aurrez azaldutako lursaileko eraikinean. Horretarako, aurreikusita dauka behin-behineko zerrenda bat egitea etorkizunean sustatuko diren etxeetan interesa izan dezaketenekin, eta, era berean, gutxienez **SEI** interesdun azalduko balira, aurreikusita dauka oinarritzko proiektu bat eta exekuzio-proiektu bat idaztea, apaizetxearen zaharberritze lanen inguruan, **SEI** etxebizitza egin daitezzen hor. Era berean, sustapenaren eta eraikina sei etxebizitzakoa bihurtzeko zaharberritze-lanen kudeaketa egiteko, haren sustapena lehiaketara ateratzeko asmoa du.

Horretarako guztirako, parrokia-elizari proposatu dio har dezala konpromisoa –helburu horiek bete ondoren- lehiaketaren esleipenduna izaten den sustatzaileari lursaila eskualdatzeko.

III. - Elduaingo parrokia-eliza prest dago Udalak diseinatutako eragiketari laguntzeko; hortaz, etxeak erosteko nahiko interesdun lortzen badira, proiektua egiten bada eta lehiaketa bidez sustatzaile bati esleitzen bazaio sustapena eta eraikuntza, parrokia-elizak hitzematzen du Elduaingo Udalak adierazitakoari eskualdatuko diola lursaila.

Hori zehaztuta, hitzarmen hau formalizatu da, honako hauek kontuan hartuz:

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Parrokia-elizak hitzematzen du **adierazpenen I. puntuan adierazitako lursaila salduko duela** Elduaingo Udalak eskatzen dionean, eta Udalak aukeratutako pertsona fisiko edo juridikoari salduko diola. Hori dena LAUGARREN klausulan adierazitako baldintza etengarriaren menpe.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Konpromisoaren epea **HIRU URTEKOA** izango da, hitzarmena sinatzen denetik hasita.

HIRUGARRENA.- PREZIOA ETA ORDAINTZEKO BALDINTZAK.

Adierazpenen I. puntuan deskribatutako lursaila erosteko prezioa **176.000 euro** izango da. Balioa ezartzeko, eraikin zaharberritu bateko 81 metro koadroko etxebizitza libre baterako Udalaren salmenta-balio objektiboa hartu da kontuan.

Eskritura publiko bidez eskualdaketa formalizatzen den momentuan ordainduko da lursailaren balioa.

LAUGARRENA.- BALDINTZA ETENGARRIA.

Aldeek onartzen dute kontratuaren eraginkortasun osoa beren borondatearekiko independenteak diren gertakarien mende egongo dela.

Horretarako, aldeek berariaz adostu dute kontratu honetan ezarritako betebeharrak eta eskubideetatik eratorritako ondorioak izateko, beharrezkoa dela lehen aipatutako baldintza etengarria xxxxxxxxxxxx egunaren aurretik betetzea. Hau da, kontratuaren eraginkortasun osoa –saltzaileak prezio osoa kobratzea eta Udalak aukeratutako erosleak jabaria eskuratzea– baldintza hauek betetzearen mende egongo da:

BALDINTZA ETENGARRIAREN KONDIZIOAK:

- Udalak gutxienez etorkizuneko etxebizitzak erosteko interesa duten sei pertsonaren idatzizko konpromisoa eduki beharko du.
- Sustapena Udalak horretarako egindako pleguan jasotzen dituen baldintzak betetzen dituen sustatzaile/eraikitzaile bati esleitu beharko dio.
- Exekuzio-proiektua oraingo apaizetxean banatu beharreko SEI etxebizitzakoa izan beharko da.
- Etxebizitzak Elduaingo Udalak itundutako prezioa izango dute.
- Proiektuak ezarriko du egungo eraikuntzako fatxadetan etxebizitzak optimizatzeko beharrezko aldaketa eta hobekuntzak egingo direla. Eta barrukoa hustuko dela eta barruan eraikiko dela, inguratzailea gainditu gabe.

BOSGARRENA.- GASTUAK.

Elduaingo Udalak bere gain hartuko ditu oinarritzko proiektua, eta behar bada exekuzio-proiektua, egiten parte hartuko duten teknikarien ordainsarien gastuak.

Oinarritzko proiektutik abiatuta azterketa egin eta gero ez badago nahikoa interesdunik (gutxienez sei), Udalak hartuko du bere gain kostua, Elduaingo parrokia-elizari inolako kargarik ezarri gabe.

Hautatutako sustatzaileari eraikina eskualdatzeak sortutako gastu eta zergei dagokienez, azken horrek ordainduko ditu, lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zerga (gainbalioa) izan ezik; parrokia-elizari egokituko zaio hori ordaintzea.

SEIGARRENA.- ZATIEN BIRKALIFIKAZIOA.

Lursaila eskualdatu ondoren, hiri-plangintzak adierazpenen I. puntuaren identifikatutako apaizetzeko zatiren bat birkalifikatzen bada eta ikusten bada zati horiek eraikigarriak direla irabazizko erabilerearako, Elduaingo Udalak hitzematzen du parrokia konpentsatuko duela birkalifikatu duten lurzoru eraikigarriaren balioari dagokion kopuru gehigarriarekin edo gehigarriekin. Balio edo konpentsazio hori urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuak (Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena) edo hura ordezkatzeko duen araudiak ezarritakoaren arabera zehaztuko da.



EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA BERTAN BEHERA GERATZEA

Hitzarmen hau sinatu eta 3 urteko epean ez badira betetzen dokumentu honetako laugarren klausulan ezarritako baldintza guzti-guztiak, hitzarmena bertan behera geratuko da.

Eta ados daudela erakusteko, dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, ondore bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.